


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ* 112n. Zenbakia Urrilla
1987



BASERRIA:

- Etxe zabala
- Sendi zabala artzeko

BASERRIA:

- Lanaren
- Euskerearen
- Euskaltasunaren
- Abia ta iturria

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

EUSKERAZALEAK

1987-88 IKASTURTEA
OGEIGARRENA

BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

EGUNAK : ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

ORDUAK : GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDAÑA : 9.000 peseta

IZENA EMOTeko . TOKIA : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14 - 2

BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

20.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

DIAS : LUNES, MIERCOLES Y VIERNES

O MARTES Y JUEVES

HORAS : MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO : 9.000 pesetas

INSCRIPCIONES : EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 BILBAO.

TELEFONO 423.53.22



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA

IKASI ETA LAN

Udaldia igaro jaku eta egunak laburtu, gauak luzatu, naizta aurten iraillean beste urteetan baiño bero aundiagoak jazán-bearra izan.

Udaldia atsedeen-aldia izan dogu. Orretarako errietako ta urietako jaiak arduratsu gertatu dira, ikurriña bai ala ez, ikurriña bakarrik ala kanpoko lagunakaz agirian ipiñi, eztabaida gogorak izan.

Eta atsedena artzeko izan dira ibillaldiak, batzutan luzeak, beste batzutan laburrak. Orretarako mendietara igoteak edo ondartzetara joateak eta arrizko naiz zurezkoak diran eder-lanak ikertzeak.

Gure lanaren ondorena dan aurrerapena argi agertzen dauan udaldia joan egin jaku ba eta orain urtealdi barri baten eta beste giro baten murgilduta bizi gara.

* * *

Gure gaztedia ikasketa-lanean bizi-bizi sartuta daukagu.

Gurasoak arduratsu dagoz euren seme-alabak, ikastolan naiz eskolan, naiz ikastetxean naiz Goi-Maillako Ikastegietan artu bear daben lako jakintza ta eziketa artu dagien. Orretarako gertakuntzak, liburu-erosteak eta olakoak.

Ikasleak be arduratsu asi dira euren liburu barriak aztertzen, naizta oraindiño ikasturtearen azkena urrin ikusten dalako-edo, ardura larregirik artu ez, bear ba'da.

Eta irakasleak, euren irakastaldi-banaketa egin dabe eta bakoitza bere orduetan eta saillan asi dira jakituria banatzen eta gazteak argitzen.

Guztiok gagoz arduratuta gure gazteen eta umeen eziketeari begira.

* * *

Langilleak be, euren oporraldiak igaro ondoren lantegietan diardue, bakoitza bere lekuan lanari ekiten.

Isillenenak eta bearren diranak, baserritarrak eta arrantzalleak, itxasoari eta lurrari bear doguzan janariak kentzen dabiltz.

Eta lantegietan, esku-lanean naiz idazgokoan, egunetan eta egun bakoitxeko orduetan lan sendoa egiten da, gizartean bear diran ondorenak aterateko.

* * *

Eta geroago ta langille geiago dauan irugarren saillea, erri-laguntzena, ez dogu aitzu bear.

Gizartea aurrera doan neurrian, lenengo sailleko langilleak, lurretik gaiak ateraten dabezenak, gitxitu egiten dira. Ara zergaitik gitxitu diran gure artean be baserritarrak eta arrantzalleak. Irugarren saillea, ostera, erri-laguntzaren saillea ugaritu egiten da. Orregaitik dira ainbeste olako lanetan diarduenak: jatetxeak, ostatuak, bankuak, idazgoak...

* * *

Or daukagu ba, Euskalerrri langillea eta naigabez ikusten doguz erria aurrera aterateko ain bearrezkoa dan lana ezin egin dabenak, lan barik dagozenak. Ara-zo mingarria benetan langabeziarena!:

Eta erri langilleak aurrera egingo dau.

Antxiña lan-orduak eta lan-egunak geiago ziran. Gaur lana arindu egin dogu, baiña lana bearrezkoa da, lan-gailluak aurrerapen aundia egin izan arren.

Gure erria, guztiok geure leketan lan egiten dogula, erletegiaren antzekoa da eta ortik dator gure itxaropena.

Gogotsu egin dagigun lana, etorkizunaren itxaropena galdu barik, gure aurretikoakandik artutako erria ta erri-ondasunak urrengoentzat ugarituta itzi dagiguzan. Baiña lanak dakarren estutasun larregia ez dakigula gaiso-bide izan. Lana egiñez gure almenak sendotu eta osotasun-bidean aurreratzen gara.

KOLITZA

Mendi guztiak, batzuk geiago besteak baiño, dabe zer-ikusi eta zer ikasi. Eta beraz danak, mendi guztiak, dira mendigoizalearentzat atsegin-garri, baiña ainbat geiagoko Kolitza lez zer ikusi ta zer ikasi dabenean, lagungarri doguzalako geure jakintza landuteko.

* * *

Kolitza mendi, Bizkai'ko Sarkaldean, Enkarterria'ren egalean, alde onetan Burgos lurraldeak diranakaz mugatzen dauala aurkitzen da, Balmaseda, Zalla eta Iturriotz (Trucios) errien bitartean eta, 874 neurkin goraka dituala.

Kadagua'ko mendi-lerroaren asierako mendia bera dala esan leike, bada, bertatik laster, urbil, asiten dira Burgueno mendi ta urrengoak, danak milla'neurkindik gorakoak.

Kolitza, oso erpiña da iru alderditik eta, beren txuntur-txunturrian Erroke eta Donosti deunai zuzendutako txadon, eleiza erromaniku apaiña dago erti aldetik zer —ikusitako aundia dauana.

Enkarterri'rik geienetik ondo ikusiten da.

Orrexegaitik izango zan bearbada mendi-gaillur erpin orretan txadon ori jasotea.

Ezin jakin izan dogu noiz jaso izan zan eleiza ori, baiña, ba'leiteke Bakio'ko Pelai, Zumetza'ko Mikel eta Ganguren'en (Galdakano) izan zan Miriñe'n aldikoa izanik, XI gizaldiaren azken-aldikoa edo XII'aren lenengo aldiaren jaso izatea, Kolitza orretako Erroke ta Donosti deunen txadon ori, beste orreik beintzat aldi ortakoak diralako, Itxasotik edo itxas-aldeetik Kompostela'ko bidean etorten ziran erromeztarren omenez Bizkaia'n lenengo jaso ziran txadonak bear bada.

* * *

Euzkadi'n, eta beraz laterri guztian azkenengo izan genduan gudaketa tamalgarrian, Kolitza mendi orretan be gudaketa gogorak, odoltusak, izan zituen gure gudari-anai kementsuak, ea azkenengo burrukak, bada, men-

di ori galduaz laster jausi zan Bizkai guztia Euzkadi'ren etsaien menpean eta, gure anaiak ez eben burruka gogorretan alderik artu nai izan, "Santoña'ko Itunbea" egin arte.

Guda-burruka orretan, beste basatxonu asko lez, Kolitza'ko txadon ikusgarria be oso trizkatuta geratu zan, tellatua jausita, alboko eleizpea erreta eta barru-aldea zikinduta, baiña, eskerrak balmasedatarrai, gaur-egun ederto barriz apainduta aurkitzen da txadon erromaniku, beren eleizpe eder ta inguru guztiak.

Aldi onetan, berebillez igon leike mendi orren aldamera arte, bada, Zalla'tik Arzentaletan bitartean dan bitxabal gaiñerarte igon eta bertan ezkertera artuaz polito goten da aipatu dogun Kolitza ondora arte.

* * *

Guda-ostean, espetxetik etorruta laster asi gintzazan, barriz Bizkai ta Euzkadi'ko mendiak len baiño zaletasun geiagogaz ikustatu eta arakatzen eta, egun baten eldu nintzan Balmaseda'ra Robla'ko bultzian, geure lepo-zorroa dindilizka gendubala ta, Balmaseda'tik bi edo iru aneineurkin (kilometro) gorago Kolitza'ko bidean arkitzen dan Pandozates auzoan agurtu ninduen esanaz: —Mendi-zale, Kolitza'ra zoziaz? —Bai asmu ori daruat. —Orduan, mezedez tellatxu bat eruango dozu bertara, telletua ipinten gabitz eta? —Bai pozik, ez bat bi eroango dodaz, esan neutsen eta, artu tella bi-orreik neure lepo-zorruan eta igon neban mendi erpin artara... Jakiña orain berrogeita urteak orain baiño kemen geiagogeunken eta...

* * *

Guk lez Balmaseda aldera elduten ziran mendigoxalerik geienak eroan ei eben tellaren bat Kolitza'ko txadon ikusgarriari barriz tellatu sindoa ipinteko.

Irakurle euzkalduna, geien baten euzkotarra!, ezagutu zeure lurraldea. Euzko abendaren benetako Aberria; Euzkadi.

ALTUNA'TAR JOSU

EDER BILLA

Eder-ederra egiaz euskal lurra, naizta geu euskaldunok konturatu barik, sarri-askotan. Mendiz, aranez, zugatz eta egazkiz beterik, alboan itxaso urduriz aberats, izadiz zoragarria da Euzkadi. Naiz eguzkiak dizdiz zeru-zear eta naiz euria ta txingorra laiño baltz ernal, nai-noiz dozu aundi ta guren euskal erria.

Ez luze ta ez zabal, ez gara lurrez aundi; baiña txiki onetan ba-dogu zer ikusi ta zer miretsi. Itxas-ertz ta lur-barru ainbat eder-gai, ez izadiak berak eskiñiak baka-rrik, baita euskaldunak gizaldietan zear bertan itxitako sorpen bikaiñak be. Eta gu, arloteok!, geure zerak itxita or zear joan oi gara, sarri geureak baiño obeak ez diranak, kanpoko edergaillu ta monumentuak ikuskatzeraz. Baiña nik sarri esana: "Ikus daigun lenengo etxekoa, ta gero miretsi-azoko kanpokoa". Etxea aurrenik, auzoa ondoren, zentzunak eskatzen.

Goikolexea.—Ederrak espiritua zabal-azten dauskulata, lengo zapatuan iru eder-zale, eder-giro naiez etxetik urten gintzazan, kotxe ariñ batean. Egun argi epelez Boroa ta Kortederra atzera itxiz, Larrabetzu'rako bidea artu genduan Erletxetan. Eta Larrabetzu beekoa laga ta Goikoan, Goiko Eleizalde'n gengoan igarri barik.

Baserri dotorez alai daukagun erritxo onek ba-dau guretzat eder-interesik, eleizeak batez be. Eleiza onek, bai, kanpotik arri eta morteru-meta, moltso ta mukurru aundia dan arren, barruz altxor galanta gordeten dausku: Lekeitio'koa ta auxe ditugu Bizkaia'n altara nagusiko egiturarik bikaiñenatarikoak.

Alan be ez gendun ikusi al izan; kanpotik eta barrutik barriztu-lanetan ebiltzan orduantxe eta sarrera atea itxita aurkitu gendun: ez eutsoen izten iñori sartzen. Kanpokaldetik ez dauka, ez leen ez orain, itxura atsegiña; baiña pertsonari be askotan, ez jako azalez baka-rrik, begiratu bear eritxia amoteko. Luzaro miretsiz egon gintzan normak, inguruak eta etxeak. Aurrez-aurre lengo abadetxea, gaur karmeldar moja batzuen egoitza; guztiz ondo ta txera aunditan artu genduezan oneik, euren otoiztegi, sala, areto, baratz ta beste leku apain-apaiñak erakutsiz.

Gaztelumendi.—Eta aurrera Morga-rako bidetik. Kilo-lometro bat edo, goratxoago, ezkerretik jo gendun Gaz-

telumendi'ranta. Bide egokia, zabal ta azpi onekoa. Baserri zuri, ondo apainduak ezker-eskuma. Piñadiak aurrez-aurre, eta emendik kiribilduta doan bidearen amaian, au da, Gaztelumendi'n, Gomutagarri edo monumentu bat, azken gerratean bertan izan ziran gorabera ta istilluengaitik jasotakoa: oroigallu onen azpiraiño eltzen zan saltzaille izandako batek zuzendu eban "Burdíñez-ko Gerrikoa". Emendik errez izan jaken sakaka etozanai sarkalderako bidea egitea. Zut-zut dago gerra ostetxoan eregi zan agiri au.

Aretxabalagana.—Barrero, begiak eta biotza ederrez asetu ondoren, Larrabetzu'tik Morgara'ko bidera. Ona, aurrez-aurre, Zornotzaldea ta ezkererago Bizkargi, niretzat beti alai. Ezkerretik gorantza, zearka-mearka, kotxea pizkat arnas estuka, toki garai ta zabalean geratu gara. Goian Bizkargi metro gitxira; baserri batzuk itxas-alde-rik; urak zatika doaz Ibaizabalera ta Butroi ibaira. Leku egoki, aizetsu ta osasunerako ona, begien ase-betegarri.

Antxiña baten, Lar Lauko baserritarrak ementxe alkar-tzen ziran, oitura ebenez, euren artu-emon, gauza ta istilluak konpondu ta erabagiteko. Aspaldiko bateko areitz ospe aundiko bat egoan bertan, eta onen adarpean egin oi ziran legezko batzarrak. Gaztelako erregeak be, Gernika'ko Arbolapean, gure oitura ta legeak gorde ta zainduko ebezala zin-egiten etorten ziranean, lenengo Goikolejea'ko eleizan eta gero ementxe geratzen zairan, euren zeremoniak burutzeko.

Areitz ospatua, lengo mendearen azkenerantza, baserri-ritar zikoitzen batek urrean, aizkora biurria odoan ezarri ta sutarako bota euskun. Aren lorratzik ez da agiri gaur.

Gerekiz.—Beerantz arturik, or Morga'ko Andra Mari, oso garbi ta pinpirin. Ezkerretik, ementxe artzen da beerago dagoan Meakaur'era be. Eta minutu asko barik, or daukagu Gerekiz. Bide gurutzea nunbait: Mungi ta Fruiz'tik gora Muxika ta Gernika'ra doana, ta ezkerretik Errigoiti'ra ta eskumatik Bizkargi azpiko auzune lerdan baterakoa. Ementxe daukagu aurrez-aurre, gaur arri-pillo ta sasi-moltzo besterik ez dan entxiña bateko Gerekiz-ko ermitea, Estaban donearen izanekoa. Edes-tian zabal dabillena. 1770'an barriztatua izan zan eremita au, eta oiñarriak ateratean bertan idazkun latiñezko batzuk eukezan arriak idoro ebezan, gaur Bilboko

UDALDIA

museuan dagozanak, istorireko balio aundikoak. Azkenengo gerratean zuzitu eben baseliza ori be, eta or dago oraindik, barregarri, iñok eskurik ipiñi ez dautso-la. Ainbat kritika zorrotz egin genduan guk berari begira ta begira.

Gero bertan, jatetxe eder eta arduraz jantzitako baten ondotik zear, Errigoiti'rako bidean jarri giñean. Gora ta beera, piñu arteetan barna, eleiz-torrea urriñetik ikusten genduala, or Errigoiti, parroki ingurua, areitz eta arte zabal jagiz ederto jantzia.

Gu oartu ginduzuneko bertako serora agurtzera urreratu jakon, oso txeratsu. Eleizea zabaldu ta oso-osorik erakutsi euskun barrua. Eleizetako serorakaitik zer asko esan oi doguzan arren, ba-dira benetan biotz oneko txalogarriak be. Orrelaxe Errigoitikoa. Eleizea zeatzasun guztiz erakutsi ondoren, sakristi ondoko "santua", kristalezko kutxa dotore baten barruan antxiña-antxiñatik bertan daukien gorpu momituari begira begira luzaro egon gintzazan.

Bizkaigana.—Errigoiti'k ba-dauka auzune lerdan baserri askoz betea be. Orrantza zuzendu gu. Ez dago bide-arlo luzea. Eleizea ta inguruak dotore ez diran arren, bai ostera inguruko baserriak, landaz, soloz ta etxe aundi ondo zainduz.

Urrats bi geiago ta or muiño tontor biribilla, egoteko aurretik mailladi leunaz. Gain-gaintxoan ermita bat; sartu gara barrura, oraintxu barriztuta, txukun dagoenera: au be monumentua dogu itxura danez, ez bait dauka santurik, ez altararik. Gerra aldian emen egon ei zan Franko, aurrez-aurreko Sollube'ko txapar arteko alderdi bietan gogor burukatu genduala: an nintzan ni Arrieta gaiñean.

Lumo.—Leku zoragarria dozu Bizkaigana. Zeozergaitik daroa izan au, Bizkaiaren lepo ba'litz legez; Bizkai erdia, bai, Gipuzkoa zati zabala ta Kantauri osoa ikusi daikegu bertatik. Guk, ordua bizkor ebillela-ta, toki oni ta birako baserri lirain atsegingarriak agur gozoa egiñik, Gernika-rako bidea artu genduan.

Beeraiño jatsi giñanean, guretariko batek: "Or goian ez ete daukagu Lumo!" —Bai, eta zer? —guk ari—; ez

ete zara egundo bertan izan? —Ez ba! —arek. Eta guk: —Goazen ara!

Eta beste barik arako bidean gengoan. Aldatz-gora dagolarik be, ez da bide luzea. Oiñez egin oi dabe gernikar askok, baita gernikar ez diranak be bernak erabilili nai dabezanak. Begiai betea ta poza biotzari ekarri nai izan ezkerro, merezi dau ara igotea. Balkoi ederederra dozu eleiz-osteko begira-tokitizat oraintsu jarritakoa. Bizkargi, Oiz, Santa Eufemia, Ereñozar, Atxerre, Izaro, ta inguruetako mendiño ondartzta ta abar, ezin obeto ikus-mende jarten jatzuz.

Sei mutil gazte agurtu genduzan emen, urrenngo egunean Lurgorri'n jokatuko zan Futbol partidurako txartel luze-zabal bat koloretuten. —Zergaitik emen —nik itandu— Eta eurak: —Toki baketsua ta ederra dalako au!

Arantza bat?—Ez, poz geiegi ez da ona. Pozaren ondoren laster izan oi kezka ta naigaberen bat. Arantzak dabez larrosak. Gu eder-billa, edo obeto, eder-ikerrean genbiltzan; eder-arloak arantzarik ez dauala-koan ibilli be. Baiña ba ditu.

Gernika'n daukagu guk Areitz bat, Arbola bedein-katua, J.M. Iparragirre'k abestu ebanez, "Euskaldun artean / guztiz maitatua". Eta guretzat pekatu da, andik igarotetan, a ikusi ta agurtu bage, alde egitea. Batzar-Etxerantz zuzendu giñan, Lumo'tik jastean. Eta ementxe geunkan zain arantza. Ara ingurura giñanean, Ertzain batek aurrea artu ta bidean okerra egin gendula esan euskun arpegi-illun. Guk euskeraz erantzun geuntson. Eta arek euskerarik ez jakin. Or arek sartu euskun arantza.

Gero etxerarte auxa izan zan "eder-billa" goiz osoan ibilli gintzazan autu-gaia: "Zergaitik euskeraz kargu ofiziala dauken guztiok?". Aginduta ez ete dago? Zetarako agindu ez betetako? Noizarte olan burla egiten gure izkuntzari? Goiko ta beeko, danak ez ete dabiltz gure erria engañetan? Ba-gara ala ez ete gara? Beti ete gure izkuntza ta euskaldunak, papaotzat artzen?

Egia esan kexa zabal orren arantza oraindik ez jaku uxatu.

AITA ONAINDIA

ZEBERIO'KO SORGIÑAK

Zeberio'ko sorgiñen barri emoten deuskun papera Valladolid'eko "Txanzillerian" aurkitzen da, "Pleitos de Vizcaia" izena dauan arloan.

1555 urtean aurkitzen gara.

Sorgiñen salatzailea Arana'ko Joan da, eta auzitegi-
ra sorgintzat eroanak Ginea'ko Diego, Gesala'ko Maria
eta Mari Otxoa.

Testigu edo lekuko 12 urteko neska bat da, Gesa-
la'ko Katálina, Gesala'ko Joanen alabea.

Neskatiltxo onek autortu eban, bein Ereñotza'ko
baserrira joan zala, eta Ereñotza'ko Joaneke lapikotxo
batetik gantz-unguento bat atera ebala, eta etxe aretan
egozan sorgiñak gantz-urregaz igurtzi zirala, oiñazpie-
tan, eskuetan, biotz gaiñean, sorbaldan, okotz eta beko-
kian, eta gero etxe gaiñera igonda Petralanda'ko zelaira
egaz joan zirala.

PETRALANDA'KO ZELAIA

Epailleak Kataliñari eskatu eutsan Petralanda'ko zelaia
zelakoa zan argitzeko, eta Kataliña'k erantzun eban:

Petralanda'ko zelaian kurutze bat dago, baita eleiza-
txo bat be, baita etxe txiki bat be. Eta atx andiak.

Epailleak itandu eutsan, ia nor egoan Petralanda'ko
zelaian, eta Kataliñak erantzun eban, Beltzebu, deabrua
egoala asto baten itxuraz, baina adarrakaz, aulki baten
jesarrita.

Eta epailleak osterara be: Zer egin zenduan Petralan-
da'ko zelaian?

Eta Kataliñak: Nire izeko Mari'k Beltzebu'rengana
eroan ninduan, eta deabruari esan eutsan: Neskatiitxo
au zuretzat ekarri dot, eta deabruak erantzun eutsan:
ala uste neban zuk egingo zenduala. Beste asko ekarri
egidazuz.

Eta barriz be epailleak: Beste lagunak zer egiten
eben zelai aretan?

Eta Kataliña'k: Pertsona andiak dantzan egiten eben,
eta txikiak zelaiko bazter batean jasarrita egoten ziran.

Eta barriz be epailleak: Beste lagunak zer egiten
eben zelai aretan?

Epailleak: zer edaten eben?

Kataliña'k: Beltzebuk katillura txixa egiten eban, eta
ori edaten eben.

Epailleak: Eta zelako guztoa eukan txix orrek?

Kataliña'k: Ez zan gozua edateko. Mingotza zan.

Epailleak: Eta sorgiñak batzarra egiten ebenean ara-
gikeriarik egiten eben?

Kataliña'k: Bai, gizonak emakumeekaz eta oneik gizo-
nezkoekaz, baiña "naturaren kontra".

Epailleak: Eta batzarra amaituta zer egiten zenduen?

Kataliña'k: osterara gure etxeetara etorten giñan.

GIZON BALTZA

Beste aldi baten Kataliña'k autortu eban, bein Ere-
ñotza'ko Joan'en etxera joan zala, eta gizon baltz batek
an bera oetik atera ebala, eta esan eutsala: Jaungoikoa
ukatu egin bear dozu, baita Andra Maria eta zeruko
santu guztiak be, baita umetan edan dozun esnea be.

Gero gizon baltz arek sutondoan sua egin eban, eta
lapiko andi bat ipiñi eban egozten, eta kea eta bitsa
ateraten ziran lapikotik, eta zeregin onetan ebillela gizon
ori, oillarrak kantua jo eban, eta gizon baltz arek lapi-
koa artuta iges egin eban, eta kanpora atera zanean
zarata andi bat entzun zan.

Epailleak itandu eutsan Kataliña'ri: Ba dakizu nor-
tzuk joaten diran Petralanda'ko zelaira?

Eta Kataliña'k erantzun eban: lenengo aldiz gauz
ara joan nintzanean Petralanda'n ikusi nebazanek oneik
dira: Ginea'tar biak, Ereñotza'ko Joan, baita onen ama,
emaztea eta arrabea. Gesalako Mari Otxoa, Arrugae-
ta'ko Mari eta beste asko...

SORGIÑAK ODOLA EDATEN

Zeberio'ko beste lekuko batek, Durango'n bizi zanak,
beste onelako autorpena egin eban:

Ni txikia nintzala, lau edo bost urtekoa, Zeberio'ko
Olabarrieta auzoan bizi nintzan, eta gure etxera
Ginea'tar Diego etorten zan eta onek ni oetik atera eta
bere etxera eroaten ninduan. Diego'k sutondoan sua
egiten eban, eta burdiñezko gauza zorrotz batez oiñe-
tatik, eskumusturretatik, eta belarri atzealdetik odola
ateraten eutsan eta gero berak edan egiten eban. Eta
gero Diego'k eukan katillu bateko gantz-urdo unguen-
toz zauriak estaldu egiten eustazan, eta gero ni osterara
be gure etxera ekarten ninduan.

SORGIÑEN ZIGORRA

Zeberio'ko sorgiñak, guztiz emeretz, bi gizona
eta amazpi emakume, espetxera eroan ebezan. Eta
epailleak erabagi eban onelako zigorra emotea: "Gesala'
ko Diego eta beste guztiak uraren eta lokarriaren
zigorra emotea, egoki danez".

GOIKOETXEA IÑAKI



MUNGIA ALDATZEN

Mungi jatorra, gizon erria,
egiz, jaio zara barriz,
erri sendo letz agertu ziñan
zure barneko gurariz;
ainbeste urtez kateiz lotuta
eta gizonen lotsariz,
era barrian aurkitzen zara
lurra askatueraziz.

Mungi aldeak bere bizia
euskaldunez dau jantzia,
euzkotar antza izan bear dau
nai ez ba-dogu iltia;
zure gogoaz askatu dozu
Mungiko erri etxia,
euskaldunentzat erritar legez
artu dozu arduria.

Ezin sinistu, ezin iruntzi,
zer jazo jakun bizian,
erri eder au bere senetik
bota nai eben lurrian;
euzkotar legez, gaur, sorturikan
erri beraren senian,
arnas barriz artuko dogu
Euzkadiren birikian.

Euzko indarra gizon askotan
agertu da oraingoan,
nekez ta miñez, ito bearrez
giza barnean egoan;
baiña semeak ez eben galdu
euskaltasuna gogoan,
egur zigorrez gogorraoak
eginik euzko giroan.

Egun ederra eldu zanean
zabaldu ziran atiak,
ta Mungiarrek gogo garbiaz
autatu ziñegotziak;
aurrerantzián arduradunak
izango erri-zaliak,
gizon zur arek sortu zituen
ondoren jarraitzailliak.

PETRI F DU GUTI-ERRE
TA EGIXERRE

EUSKERA

Arrigarria zara, euskera,
jakintsu aundi artean,
zure jakintza ain berezi da
gizon jakitun aurrean;
pentsa ta pentsa, begira dagoz
zer dagon zure barnean,
bardingabetzat artuten zaitu
jakituriak lurrean.

Euskal mendiak eta arruak
ibar orlegiz batera,
euskerarentzat izan zirian
kabi kutun eder-bera;
arkaitzak euken sendotasuna
lurrak, oparo, onbera,
danak eskeintzen eben eskarrez
gogo garbia barnera.

Euskalerriko ingugu ortan
mendiz ebiltzan gizonak,
pistiak ilten eiztari lez
alkarturikan lagunak;
geldi geldika geitzen joiezan
gizonen argitasunak,
euren artean adieraziz
barruko asmo zuzenak.

Bene benetan gizon apalak,
jakituririk bakoak,
amalau milla urte ba-daukaz
euzkotar onen gogoak;
sortzetik dakar zentzuntasuna
euskaldunaren barruak,
jokera onak ta argitsuak
daukaz euskaldun eskuak.

Oiñarri ontan dauka sustraia
euzko izkuntza argiak,
argi ta garbi, indarra dauka
euzkotarren arimiak;
itz eta egi alkartu ditu
edertasunez betiak,
arrigarritzko mintzai sortu dau
berezko jakituriak.

PAULIN

GALBURUAK

Galburuak buruz buru
Zein eder ikusten diran
Zutik zibu eta zibu
Aizezko gozamenean!

Galburu eze, lerdanak,
Orlegi ta bizardunak,
Itxaroz jantzi direnak:
Oigai eder, kutunak.

Naparroako alorretan
Eperrak dabiltz kantari
Lautada ta malkarretan
Kabi-lanetan maitari.

Bizia galburuz pilpil,
—Gaur eze, biar beilegi—
Eguzkipean goratil,
Olatuzko ogitegi!

Azal gorri, barru zuri,
Urun biurtuta gero
Ogi eta opil bero,
Egunoroko janari!

Gizonentzat eusgarri
Izan beti, maiko buru,
Gosekentzalle nagosi
Ogi eder bedeinkatu!!

MUNIATEGI-TAR SABIN



NEURETZAKO BIKANENA

Goizian-goizik, etxetik urten
izer topa dozu bidian?
Gizon gaztia, bular sendoa,
buru jagia, indartsua,
tinko ibillera... Neure albotik
igaro da.

* * *

Neskatil eder, ondo jantzita,
lirain, alaya, begikoa.
Usain ederra bere inguruan,
begi iri-barrez... igaro da.

* * *

Baratz basterran, larrosondoko
ganeko adarran larrosea,

pipil gorria, erdi zabalik
aize bigunaz seaskatua.
Ixil-ixillik agurtu dodaz
neure bidia jarraitua.

* * *

Gelditokian belbil aundia,
gazte ta zarraz betetzen da.
Udea da ta, ba duaz orrek
ibilte andia egitera.
Une batean, eurek begira
gelditu naz.

* * *

Orra or bere, txori txikia
beren egoaz altzetan da.

Zugatz gañetik, bere ibiltea
orain asten da, zeru-ziar.

* * *

Ixil-ixillan agurtu dodaz,
neure bidia jarraituta.
Agur danai, ta ondo ibilli.
Enaz sartuko lei orretan.
Esautu dodaz poz guzti orrek.
Orain, gurago dot kabia.

Gela txiroa, txiki ta argia.
An, neu bakarrik eta ixillan,
aurkitzen dot sarri askotan,
Jauna'k emonda, zoriona.

UTARSUS

LUMO

Eguzkiaren orietan bilbilik nago
neure balkoian, arratsak arnas bitartean.
Ezearen bakea begietan; gorago
Lumoko tontorra, Txairo, urre-auts artean.

Elizako torre luzea erdi lo dago
zeru goiko sabai urdinaren etortean;
arri doneak, ainbat ume giñanen zaingo,
asko joanak Jaunaren atsedean betean.

Begira nagokizu ene Lumo maitea
ume aroko neure bi begi garbiekin;
arima t'aragian dabilkidaz bi pena:

Aita, gazterik il, ez ezagutzearena
—ain ume koxkor ni, zeri jakin gabe zotin—
t'ama merezi aina ez maite izatea.

A. BIDAGUREN

IPUIN-SARIKETA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan
lez aurtan be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak
oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskal-
kia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazke-
rea, **EUSKERAZAINTZA**'k argitaratua eta **ZER**
aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaurikoak edo errian batuak izango dira,
ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeerea iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez
idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak
ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabe-
nak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena
emoten dauanean.

— Azillaren azkenerako **EUSKERAZALEAK AL-
KARTEA**'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larrea-
tegi 14.2.^a, eskoia) egon bear dabe. Abenduaren
azkenerako emongo da maikoen erabagia eta
ZER'en agertuko da, Urterillean, baita **DEIA**
Egunkarian be al bait lasterren.

— Sariak lau izango dira:

- 1.^a 40.000 pezeta
- 2.^a 30.000 pezeta
- 3.^a 20.000 pezeta
- 4.^a 10.000 pezeta

— Ipuinak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki
baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

JAKINTZA

Danen agoan dabil jakintza itza. Asko erabillitako gaia itzaldietan eta idaztietan.

Beti ez zuzen. Sarritan oker.

Garrantzi aundia emon iako gaur egunean jakintzari, Ainbeste ez antxiña. Antxiña aberastasuna bakarrik zala garrantzitsuena esan daiteke.

Asko zabaldu dira bideak, jakintzaren alde. Ain aberatzak ez diranak be aleginduko dira zelan edo alan euren seme-alabai ikastaroak egiteko adontasuna emoten biar-etzi bizitzarako egiteko errezago izan dakien.

Gaur edozein da eskoladun. Mendi-gallurreko base-rrian iaio ta bizi dana be bai.

Len, urte batzuk erriko eskolan eta kitu. Gero lan egin. Gaur ostera gazteak trebetasuna erakusten ba'dau, erreztasun aundiak dauz ikastaroak osotzeko. Eta berak gura dauzanak.

Jakiña! ikastaroak osotuta be jakintza-gallurra ez da iritxiko; jakintsu oso-osea ez da izango, baiña gizon argia, prestua, gizartean lenengo maillak lortzeko bai.

Agintariak-eta erreztasun aundia damotsoe-gaur gazteari ikastaroak egin dagiazan. Bestetik jakintza-zaletasun andia nabaitzen da onetan gure gaztedian.

Kirolak indar aundia dauke gure errian eta gure gazteak euren trebetasuna ondo erakutsi izan dabe. Pelotan beti onenak eta era guztietan. Ostikoketan be punterengoenak agertu izan dira aspalditik. Indarketan be oso ospetsuak izan dira beti euskaldunak, adibidez ukabilketan, arri-jasotzen, aizkoran, segalaritzan.

Erriaren onerako baiña, ezer ez jakintza bezalakorik; eta gaur ba-doguz gure Aberrian ikastetxe ederrak eta ugari ta millak ta millak gazte eurretan ikastaroak egiten.

Ikastaroak gure izkuntzan —euskeraz— ba'litzakez askoz obe; baiña gure euskerak artuko dau bere tokia ikastetxeetan egunen batean.

Zabaldu dagiogun bidea gure errian jakintzari Jovelanos'ek esan ebanez ba"jakintza gizonaren pitxirik jorie-na da".

ZILLEIZTIA

Danok negartzen eta gaiztetsiten doguz zuzengabekeriak. Zuzengabekeria garaile ikusteak min damosku. Ta ainbeste zuzengabekeri ikusten dira gaurko gizartean.

Gizonaren eskubideak zapalduta. Erri txikien eskubideak zapalduta. Zergaitik? Non dabe sortzea zuzengabekeriok? Zilleiztirik-ezean. Zilleiztiak zuzendu bear dau gizona bere egite guztietan. Zilleiztia zuzendaritzat ez dauan gizonak zuzengabekeri asko egingo dauz batez be besteakaz izango dauazan ar-emonetan.

Gizaldi guztietako gizon argiak goraldtu dabe zilleiztia ta bearrezkotzat euki be bai gizonen eta gizartearen onerako. Zilleiztirik barik ezin izan leiteké zuzenbiderik eta beraz bakerik; alkartasunik eta zorionik be ez.

Zilleiztiak danean agintzen dau. Abots bat da ta itzala jartzen dau. Aolkua damosku naizta guk ixildu-erazota entzun nai ez (Kant.).

Zilleiztia ta gizadia izatez gauza bat bera dira (Espinosa).

Zilleiztia irakastea gauza erreza da; sortzea zaila (Schopenhauer).

Ondo pentsatu dagigun. Orra or zilleiztiaren oiñaria. Zilleiztia da adimenaren zuzendaririk onena (Balmes.).

Zilleiztiak ezer ezin egin daike legeen laguntzarik barik ta legeak ezer ezin egin leikie oitura onik barik (Baron de Holbach).

Gizartean zoriontsu bizi gura daben gizonak zilleiztia ezagutu ta jakin bear dabe (Baron de Holbach).

Jakintzari zilleiztia eskatzea atzipeak izateko arriskuan jartzea da (Anatole France).

Politikarako gizona bitarteko da; zilleiztirako elburu (Herder).

Elburutzat zoriona ez dauan zilleiztia ezer ez diñon itza da (Fuerbach)

Zilleiztia gizonen tarteko ar-emonak sor-erazten dabezan egin-bearrak elburutzat dauazan jakintza da (Baron de Holbach).

PARKAMEN OROKORRA

Berrogeitamar urte betetzen dira gudea asi zan-ekero. Urte-urrena oroigarri ta alde berean tamalgarria. Au dala-ta, ajola aundiagaz gomutatzen doguz orduan gertatutako jazokunak eta egintzak. Izan be, aztu-eziñak izaten dira ain estu ta larri bizitako egunak. Zelan aztu daiteke ainbeste neke, kalte ta oñaze, naiz-ta mende-erdi bat igaran?

Beraz, ez da arritzekoa egon gaitezkan oraintsu buru-belarri murgilduta gai onetan. Bai telebistan, bai egunkari ta aldizkari askotan, erakusten daukuez orduan jazo izan ziran gertaerak, albisteak zeatz-meatz emonaz.

Idaz-lan onetan ez gara arituko bonbaketak edo eraso-aldiak edesten. Gernika'ko ondamendia dala edo Durango'n, Zornotza'n eta ainbeste erri ta urietan izan ziran zatikatzeari buruz asko idatzi da. Gudak ba daukoz beste ikuspegi batzuk. Egia esan, gudari baten arazo garrantzitsuena izkilluari dagokiona da, baiña beste motako kezak be izaten dira euren artean guda-oiñetako bizitan. Gizonak diran ekero, eurekin daroetz norberaren larritasun eta ardurak. Batzuetan pozik eta alai, bestetan goibel eta illun, beren gogo barren-barrenean darabillez jazoten diran gertaerak. Kristau diran aldetik be euren jokaera zintzo zuzendu bearra..... etxean itzi debezan artu-emonak..... senideak dirala..... emaztegia dala..... ogibideko zeregiñak..... eta ainbeste buruauste aldean kendu eziñik.

Ikusi daigun ba gudea ikuspegi onetatik eta alegindu gaitezkan larritasun orretzaz zeozer esaten.

Bein baten, guda-oiñan, gudari talde aundi batek Parkamen Orokorra artu genduan gure kapellauaren eskutik. Bat-batean, izugarrizko eraso-aldia asi zan eta gure arima-zaiñak, il zorian gengozala ikusirik, bere arloan ekin eban. Ausartu ta kementsu, bereala zutunik jarri zan. Pekatuaren damutasuna gure biotz-biotzean sortu-erazi ondoren, eskumia jaso ta, gurutze deuna egiñaz, parkameneko itzak aoskatu eban. Une benetan ikaragarria ta aztu-eziñekua. Bitartean danok, izkiliuak arturik, giñoiazan estu ta larri baktotxa beren lekura arerioari gogor egiteko.

Orra or ba, gudarien zori edo egoera bat eta ez makala. Gero etorriko ziran zauriak eta aienekak. Batzuk an geratu ziran arnaska, beste batzuk illak. Ez genduan iñoiz barririk euki euretaz. Baiña bai dakigu aukera euki ebela abertzale ez eze kristau bezela iltzeko.

Kristau bezela iltzeko aukera aipatu dogun ekero, bidezkoa izango litzake onetzaz zeozer azaltzea.

Gudan ibili gintzazan burrukalaria guztiok, ez genduan onelako zoria euki. Gudea asi ta gero, Españañ Laterria erdibituta geratu zan lenengo egunetatik. Alde batean frankotarrak eta beste aldean erkal edo errepublika-zaleok.

Jakiña da zer gertatu zan. Franco'ren aldean dana zan koipekeri ta gorespina uskurtz edo erlejiñoarentzat eta apaizak be begirune ta laguntza aundiak euki ebezan. Baiña ori ez zan gertatu beste aldean. Euzkadi'n izan ezik, izugarrizko eleiz erreketeta ta apaiz erailteak egin ziran.

Euzkadi'n, Jaungoikoari eskerrak, siñesmen agerke-ta ta erlejiño bazkunen azkatasuna tinko aldeztu ziran eta gure giro edo inguruna ez zan aldatu. Beti bezela, zabalik egoten ziran geure eleizak euren apaizekin. Orre-gaitik, agiriko gurtzea oi bezela garatu zalako, Euzko Gudaroztea'k almena euki eban kapellauak aukeratzeo gudarien gogo-bizitzaren zaintzailleak izan deitezkan.

Onetariko kapellau batek lagundu ginduzan geure ibilkera guztietan. Bere laguntasuna oso maitegarri ta pozgarria zan guretzat. Baita aolkari inuratsu ba'ekian izaten. Bere ondoan ondo genbiltzan. Bare-aldietan, naiz guda-oiñan egon, aukera izaten genduan jaupa edo mezea entzuteko ta, gura izan ekero, baita autor-tu ta jaunartzeko be.

Aldekoa'tar Toma da bere izena ta len aipatu dogun Parkamen Orokorra (tiroka, daunbada ta egazkiñen artean) berak emon euskun. Au gertatu zan Araba'ko guda-oiñan, Otxandio eta Legutiano bitarte dagon toki baten Krutzeta deritxona. Ondiño, Jaungoikoari eskerrak, gure artean daukagu kapellau berau. Danok bezela, berrogeitamar urte geiagu lepoan baiña osasuntsu ta sendo.

Begoña'ko Andra Mari'en Abade-tegian bizi da. Bilbo'n bertan. Begoña'ko Andra Mari'en kaleko 8'an.

Mende-erdi bat igaran arren ez gara aztu. Eskerrik-asko biotz-biotzetik. Jaungoikuak gorde dagiskula urte askotan.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER
Mungia Gudalorokua

GERNIKA SUTAN (60 urte)

(BIZKAIEREAREN ASTEAN)

Gernika'k izan eban ondamenaz eta atxillo-zelai eta baitegietan jazo izan zirean eta jazoten direan neke-oiñazeak eta eskoetar naiz exkertarren jaunkeri edo ditaduretan euren eritxietakoak ez direneri egiten dautsezan, bai gogoko ta bai gorputzeko jazarkizun, irain eta eriotzakaz gomutetan nazan bakotxean, auxe itauntzen dautsat neure buruari: Zer dala-ta izan daikee, gizonak, eurekientzat olango gorroto ankerra? Eta, zer dala-ta olango odol-egarria bestetariko eretxiak dabezanei?

Beti eta toki askotan jazo izan dira, eta aurreran-tzean be jazoko dira, zoritxarrez, olango zantarkeri ta bidebakokeriak; baiña geien arritzen nauana auxe da: Menperatzailleak gure errian, Euskalerrri'an, Jainkoa'ren izenean egin ebezan egiteko nabarmenkeri ta neurri bagako gaiztakeriak.

Guda-aldian, askok eta askok, zentzuna galtzen dabe, gure artean bere galdu ebenez, eta inun direan egiñen lotsagarriak egin ebezan euren aldekoak etziranen aurka gure atsaiaik: Guzurrezko zalakuntzak, lapurretak, eraiketak eta abar. Eta, bakez eta pozik bizi izan giñan erria, laborritan eta bildur-ikaraz jarri eban atzerritik, bertoko batzukaz batera generatu euskuen gudu mada-rikatu arek.

Erriari eldu leikeon zigorrik txarrena ta bildurgarriena dogu gudea: Gosea, egarria, latzikarea, gexoa, erio-tzea, etxe-bizitzak apurtu eta sendien sakabanatzea, eta abar eta abar. Gerrarik onena baiño oba zala bakerik txarrena esaten eben gure zaarrak.

* * *

Gure arerioak ba-ekien, ba, biotzak illundu eta erri-ri adorea galdu-azoteko, gudoiñetako erasoaz ganera, atze-aldean be gogor jo bear zana, erriak zuzitu eta alik geien il eta ondatuz. Orrexegaitik egiten euskuezan eraso-aldi gogorrek, errietan be, biztanleak kikildu daitezana.

Erri askok izan ebezan egazkiñen eraso-aldiak baiña ordurartekoen aldian gogorra izan genduan Durango'n 1937'garren urteko Epaila'ren 31'garrenean egin ebena. Il eta zaurituak ugari izan zirean, kalean eta Elizan Mezea entzuten egozenen artean. Eliz-gizon bi, jesula-gun bi mezea esaten egozala, eta baita beste amalau lekaima be.

Egunero berba-egiten eban, Sevilla irratitik, Queipo de Llano gudalburu edo generalak eta auxe, guzur

naskagarri auxe, esan eban: "Emakume eta umeak gura nai gura ez sartu-azo elizetan eta euzkotarrak, eurak, emon dautse sua elizar".

* * *

Durango'ko zarraskia izan eta beingoan, arik ogeta-sei egunera, 1937'garren urteko Jorrailla'ren 26'garre-nean izan zan, ba, dakizuenez, Gernika'ko lerkai-erasoa, udabarriko arratsalde argi batez.

Gernika'n, astelena, azoka ta peria-eguna izaten zan leen eta orain bere merkatu-eguna. Orain ez da egiten abereen periarik, baiña bai, merkatua ortuari, egazti, arrautza, gaztae, igali eta abar.

Inguruetako erri asko batzen dira Gernika'ko azoka-ara: beste uririk ez dago, ba, urretan eta au dala-ta batzen dira an, inguru-errietakoak.

Astelenez, merkatu-egunez, izan zan, ba, Gernika'ren kixkaltze negargarria, alik-eta ondamendi aundia-goia ta ikaragarriagoa izan eiten: alik gein il eta ondatu eta enpaiduak bilurrikareaz ondatzeko.

* * *

Gogor ebillan gudea gure mendietan eta an ebillan gure gaztedia, jo ta kee, arerioen guda-tresna ugari-ri, geure urritasunakaz, eutsi eziniñk.

Zaarrak, neskatillak eta umeak bakarrik egozan etxee-tan, bizimodua aurrera eroateko eta astelenetan Gerni-kara'tzen zirean euren salgaiakaz diru apur bat artu eta etxerako bear zirean gauzak zuzentzeko.

Orain goiz eta eberdi-aldian izaten dira merkatuko salerosketak, baiña leenago, guda-aurrean, eberdi-inguruan asi ta arratsalde erdirarte izaten zan eta periarra joaten zirean gizon eta mutillak gaberarte ibiltzen zirean: Jai-izaten genduan, ba, astelen atsaldea.

Suagen dunbotsak mendietan eta erriak goibel, albis-te txarren bat noz elduko, beti artega, bizikera larría egoan errietan. Gitxi zirean, ba, etxekoen bat, batzuk bi edo iru bere bai, guda-oñetan ez eukeezanak.

* * *

Esan dodanez, azoka-eguna izan zan, ba, Gernika ondatzeko autatu eben eguna.

Aspalditik egoan Gernika-inguruko errietan egunen baten egazkiñak erasoko eben bildurra gogoetan sartuta eta astelen atan etziran joan izan, merkatura beti joan oi zirean guztiak, egun atan zeozer txarra jazo leitekean ustez. Goiz atan bonbak jaurti ebezan, ba, Aiangiz eta Mendata'ren bitartean dagoan Mariniz auzo-unean be eta Gipuzkoa-aldeetik igesita egoan emekume bat il eben, bertan, ingurukoeri bildur-ikara aundia sarturik.

Munitibar eta Gerriketze be gogor bonbakatu ebezan egun atan; etsaiak ba-ekien, ba, Markiña-aldeetik Gernika-aldera etozan gudariak igaro bear eben bide-kurutzea antxe egoana.

* * *

Gernika'n izan zan bonba-erasoari buruz asko idatzi eta esan izan da, mundua-zear, guzur eta abar. Guzurra izkillu altsua da, izan bere, gero, gudu-aldietan! Eta emen egin izan eben egiñen zantar eta zikiñaren errua geuri, euzkotarro, ezarri gura izan euskuen eta guzur zantar eta iraingariak zabaidu ebezan Salamanka-irratitik: Agirre'k guzurra diñola, eurak ez ebela erre Gernika, aleman-agontzirik ez atzerrikorik ez egoala España'n, Euskalerr'ak ba-ekiala eurak ango lege-zarrerri lotsea dautsena eta abar eta abar, Agirre gure lendakari zin-zoa zana zantartzat etsi eben...

Naia-ta egontzirik ez geunkana jakin eta ondamen aren lekuko izan, gure arerio menperatzailleak egin izan eben edakunde zitalak eragiñik, ba-ziran geu izan giñala Gernika erre genduanak siñistu eben oski! ganorabako batzuk bere. Aundia izan zan, ba, euren egitada kaxkar baizen ankerra geuri ezarteko egin izan eben guzurrezko zabalketa zikiña.

Bonbaketa itzela izan eta aste-bete batzuetara, zaurituta eta atxillo nengoan eritetxe baten eta auxe esan eustan gexo-zain sorgin batek: "Bai, nazionalak bonbakatuko eben, Gernika, baiña gudariak emon eutsoen sua...". Eta, olakoxeak entzun-arren be, ixilik iraun bear, zigortuak izan ez gendizan. Etzan arritzekoa neskaxa arrotxa areik ori siñestea...

* * *

Guda anker atan ibilli izan giñanok, ba-dakigu zalan-go bildur-ikarea ezarten daben egazkiñak norbere ganean osteraka ta urrumaka lerkai-urtika diarduenean eta esan bearrik ez dago Gernika'n zelango esturea, ixuikerea, urduritasuna, larritasuna ta egon-eziña ibilli izan zan egontziak joan-etorrian guztia apurtzen, guztia erretan eta al ebezan guztiak ilten ekin eutsenean: Angoa arrapaladea ta ezkutau-bearra, eriotzearen sorbatz zorrotzari igesi-guraz Egazkiñak eta bonbak ezarten daben bildur-ikarea, unetaragiño sartzen da, ba, guda-aldietan, eta odolak irakitan jarririk, edozetarako eran jartzen da gizona, senetik urtenda lez.

Leen bere esan dodanez, asko idatzi eta esan izan da, bai emen eta bai an, guzur eta abar, ludia-zear, Gernika'ko egontzi-erasoa dala-ta.

Batzuk uste dabe, Errenteria'tik Gernika'ra bitarteko zubia apurtzeko egiñ ebela, gudarien atzerakadea galazoteko. Baiña, sustarbakokeria da au izan zala aren egin-bearra uste izatea. Nok aurka-egin ez eben izan eta errez apurtu egikeen, gura izan ba'lebe, zubia, iru-lau lerkai, goregi ibilli-bearrik ez eben izan-eta; beetik geien be bosteun neurkiñeñe ibilli izan ziran, ba, ezeren bildur bagarik. Inguruko etxeak ondatu-arren, ikuturik bere ez eutsoen egin izan, ba, zubiari. Bai, aurki, atan etorri izan ba'lira!

Batzar-etxeari be ez eutsoen ikuturik egin izan, karlalar-izenekoak be euren lagun zireanez, ez eutsoen egoki eritxiko Gernika'ko zugatza ondatzeari; eta, ganera, mundua-zear izan egikeen gaitsezpena be gogoan izango eben, aurki. Oleari, "pabrikari" be ez eutsen okuturik egin izan, Mola gudal-buruak au esan eban-arren: "...beingoan makurtu ezpa'dadi, Bizkai guztia ondaturko dot, bee-beerañño, gerrako oleak "pabrikak" asita".

* * *

Bein Amerikar gizon bat eldu yatan, norbaitek bidalita, Gernika'ko lerkai-erasoaren barri jakin gura ebalata. Izen-ordez-edo "Egur-txiki" eritxola esan eustan. Liburuen bat idazteko amesaz ebillan, antza; ez dakit idatzi eban ala ez; ez dot izan, ba, aren barririk arezkero.

Vicente Talón deritxon balentziar izparkari batek be idatzi eban "Arde Gernika" izenpuruaz liburu bat, España'n Franco agintzen egoan azken aldian; aldi atan idatzia zan ezkerre ta izen erakarkorra, eukanez, irakurri bere askok egin egikeala nik uste. Franco'k etzekiala doiztarrak egin ebela a, bonbaketa itzel a, egiztau guraz egiña da onen liburua. Talón onek, orain, Bilbo'ko "El Correo Español"en idazten dau eta ez gure alde idatzi bere. Beste esakizun askoren, artean, auxe diño aitatu dodan idatzian: "Berlin'etik zuzenean etozan aginduz, alemaniarren egontziz ondatua izan zan Gernika...". Eta itaun auxe egiten dau: "Egazkiñak erre eben goitik ala beean jaboten egozan indarrak?". Eta bere esanai indarra emoteko Goering alemaniar *mariscalak* esan ebana aittatzen dau: "Luftwaffe euren egazkintzaz aproba bat egiteko tokia aurkitu bearra izan ebela. Gudako erailletzat etsi eben Goering au eta Nuremberg'eko epaiketeen egin eutsoezan itauneri erantzukeran esan ebazan onek berbok.

* * *

Eraso anker aretan, doiztarrak, euren indarrak txastau gura izan ebezan eta, orretarako, opageia bear eben. Baiña, Franco'k edo aren urrekoren batek esan ezpa'leutse, zigur nago doiztarrak ez ekiena Gernika'n

GERNIKA

asteleena azoka-eguna izaten zanik eta lagun asko batzen zanik. Onexegaitik uste geinke, alemaniarrai astelena, peria-eguna, aukeratu eutsela a, eraiketa itzel a, egiteko. Zenbat eta gizon eta emakume geiago erail gurago eben, ba, gure arerioak, latzikarea sartu eta leen bait-leen euzko gudarostea ondatzeko: Ainbat ariñen Euskalerrria menperatzeko. Ementxe euken, ba, gogortasunik aundiena eta euzkotarren indarrak ondatuezkero, nasaiago geratzen ziran aurrera ekiteko.

An, or eta emen Gernika'ko ondamendiari buruz esan eta idatzi izan direan okerresan, guzur eta abarri erantzuteko, Uriarte'tar Kastor, Gernika'ko udal-eraikille edo arkitettoa izan zanak, "Bombas y mentiras sobre Gernika" argitaratu eban eta egiari lekua emon eutsan inguruetan ebillan ainbeste ta ainbeste guzur eta itxusieria alatu.

Naiz-ta guzurrezko zabalkunde ugari ibilli eta goiko agintariak egia jakin, euretarrak be ez egozan zigur zein izan zatekean bonbaketa aren egillea eta Miranda-eta, agerpen-itaunak egikeran, emengo gudari atxillotueri guztieri itauntzen eutsen nok erre eban Gernika. Eta, egia erantzun ezker ba-ekien zer eukeen.

Miranda aittetu dodan ezker, auxe be esan bear dot, ba, naiz-ta Gernika'ko ondamera ikustekorik izan ez. Atxillotutako gudari talde bateri españarrak ziranentz itaundu eutsen; abertzale zintzoak zirean, ba, eta ezetz erantzun eutsen. Areitako bat, galdakaotarra, abizenez Egileor uste dot, Larrinaga'n izkillutu egin eben. Beste bat, busturiarra, Izagirre'tar Luki, erail ez eben egin izan baiña erio-nekea kendu ta betirako espetxea ezarri eutsoen.

Atxillotuen langille-taldean erabilli izan eben nire lagun batek esaten dau, itzalbarri edo ziñera joateko baimena izan ei-eben, bein, eta an, antzokian, Gernika'ren ondamera agertu ei-eben. Euskerazko idazkun batzuk agiri ei-zirean orma apurtuetan eta, "ikustozue —esan ei-eban— ikustozue, idazkun orreik argi adirazten dabe an, Gernika'n, atzerritarrak ibilli izan zireana...! Bai. Atzerritarrak ondatu eben baiña eurek ekarritako atzerritar deungeak.

* * *

Esan dodanez, ango ingurukoak ba-eben egunen baten Gernika'ri eraso —aldien bat egingo eutsoen susmoa, baiña ez eben uste izango, astelenen baten, azoka-egunean, egin egikeenik.

Biotzak guduaren goibeltasunak illunduta zirean-arren, Izadia orriz eta loraz jazten egoan, beti lez, bere egin bearra betetan...

Gudoñeko bunbotsak mendietan egiten ebezan oiar-tzunak entzuten zirean baiña bizi direanak aurrera egin bear eta bakotxak bere eginbearretan ziarduen azokara eldu izan zireanak.

Salerosketa eta ar-emonetan urduri ebizan, gizon eta emakumeak, merkatu eta perian, ainbat bizkorren ango egitekoak egin eta bakotxa bere etxerantz abietako.

Eta, eldu izan zan eltzekoa, arratsaldeko lau ta erdiak aldean. Egazkin bat agertu izan zan leelengo, taiu txarrean, sarkaldetik. Egin eban goitik beerako ikustaldi zitala eta inguruak arakatu zituanean alde-egin eban. Ba-ekian, ba, bildur bagarik bete egikeena egiteko asmau eben egiñen ankerra. Eta arik laster asi izan zan bonbaketa ondagarria.

Iru egontzi agertu izan zirean Gasteiz-aldetik, bonbaz zamautu eta zubiaren inguruan jaurti ebezan lelen-go lerkaiak. Ots ikaragarria egin eben. Andik aneurkin edo killometro bira be dardarea egin eben etxeak. Lelengo irurak euren zama (karga-) eraikorra ustuta alde ebenerako, beste iru agertu izan zirean eta irunen-irunen, batzuk joan eta beste batzuk etorri, iru ordu ta erdi inguruko joan-etorrian, eten bagarik, erri guztia apurtu ta ondatu-arte. Eta guztia apurtu ebenean, suzko lerkaiak jaurti ta sua emon eutsoen eta erri guztia kixkildu zan, sugarretan. Erritik igesi yeiazanai, barriz, izkillazkarrez erasoten eutsen eta asko il eta zauritu ebezan inguruetan be.

* * *

Siñistu eziñekoa da illuntze ta gau atan jazo izan zan jazotekoa: Gorputz apurtuak tatarrez, atz-begiak sakabanatuta su eta orma apurtuen artean, zaurituak uluka ta zarataka, umeak negarrez gurasoen billa orma ta ageak parrastadaka, jausten, eta siñistu be ezin daitekean arrapaladea ta egon eziña, sugar eta ondamenen artean. Giza-zentzunak asmau be ezin daiken besteko ondamerdia.

Eldu zan gaba, neke ta oiñaze larrien gau baltza, eta kale apurtuetatik urtetan eben sugar itzelak inguru guztiak eukazan argi.

Gau itzel baizen negargarri atan zauritu barik bizirik geratu izan zireanak, bakotxa bere etxekoen billa ebillan, didarrez eta deika, eguna argitu-arte eta biamonean jakin eban, bakotxak, nortzuk il edo zuntzitu zirean.

Asko, igeslekuen barruan bertan geratu izan zirean eortzita, lurperatuta. Lurraren azpira zuloa eginda egoan igesleku bat ezik, besteak egur eta are-xorroakaz, kale-ertzetan egiñak izan zirean: Metralla-zati txikiak-eta geratzeko bai baiña ez euken lerkaiantzat sozpurik eta askok eta askok izan eben ondamenen artean azkena.

Egazkiñen eraso izugarri atan zenbatak galdu ete-eben bizia? Eundaka esaten dabe batzuk: laureun, bos-teun eta abar. Ba-dira millakak ondatu izan zireala esan daroenak bere. 250 il eta zaurituak asko be geiago diño. Uriarte'tar Kastor'ek bere idaztian, baiña nik neuk uste dot 250 baiño asko geiagok galdu ebela bizia. Danadala izugarritzko erailketea izan zan eta ez da erreza zenbat ondatu zirean jakitea, ondamenen artean be asko geratu izan zirean eta baita erriaren inguruetan bere.

Millakak geratu zirean etxe-bizitzak zuntzituta, aldean eukezan soñekoakaz bakarrik, janari barik, gaba nun-egin ez ebela eta illak-il, ibiltaldi negargarrian yoiazan, biziak, bakotzak al eban lekura, bizikera barriari nun elduko eutsoen zigurtasun bagarik eta bizi izateko pozik ez adore barik, gogo zaurituen tamaltasun goibelez, aulduta, nekatuta, senetik urtenda eta milla burutape-nez buruak lorrinduta: angoa negarra, garraxia, deia ta zoramena! Goibeltasunezko zakabanatze arek mundua-ren azken-eguna zirudian.

* * *

Gutzizalekeri edo *totalistarismo*aren erailketa ta zantarkerien ezaugarri geratu izan da, ba, Gernika'ren ize-na, mundua-zear, edestirako. Au dalata, bonkaketa a izan zanik 50'garren urte onetan leku askotarik eldu izan dira, Gernika'ra ordezkariak: Alemania'tik, Japon'etik eta beste atzerri askotarik. Baiña txarto be txarto deritxat, olango gomutagarri illun eta atsekabe-tsa u jolasakaz ospatzea, egin izan dabenez...

* * *

Pikaso'ren *Gernika* entzutetsua izan dala, esan dai-kegu, aren, erailketa aren, entzutea geien zabaldu izan dauana, ludia-zear, margozki bakan aren taiu ulergatxagaz.

Pikaso aittetu dogunezkero, andaluziar aren mar-goizkiari buruz be zeozer esan bear dot: besteenak bes-te, neuk be neure eritxiak ba-dodaz, ba, ari buruz.

Geienak, ezer aditu bagarik, beste batzuk esaten dabela-ta, iñoren esanetara jartzen dira, oso-osoa, euren eritxirik ez dabelako eta auxe jazoten da Pikaso'ren margozki antzutetsuaz bere.

Naiz-ta geien baten aditua izan ez, guztiok daukagu geure eritxiak izateko eskubidea, adimendunak gareanezkero eta, besteen eritxiak txarretsi barik, neurea

esango dot, nik neuk. Esan-egin dabela-ta barik, gauzak neurez ikusi, goznartu eta on ala txar deritxateen neu-rekautan erabagitea izaten yat, ba, gogoko.

Pikaso'ren margoizkiak margo-zaleentzat izango ditu bere obariak baiña ni neu ez nau bat bere lilluratzen lauki arek. Ez dauka, ba, ez euzkotarrik ez euskaltarrik, naiz-ta lauki aren goresleak alegin guztiak egin izan aren esangureak azaltzen. Iñoz entzun izan dot, eta gizon ikasiak esanda entzun bere, Pikaso'k Gernika erre orduko eginda eukala margoizki ori eta Gernika'ren ondarena jakin ebanean, laukian agiri dan aurpegi aundiari txapela jarri eta arbil edo bonbilla-argia ipiñi egin eutsozala. Ez dakit egia dan ala ez...

Iñoz irakurri izan dot, nun bait, ba-dala Gernika'ko ondamenari buruz egindako margoizki egokien bat Arte-ta'k edo ez dakit nok be, euzkotarren batek egiña. Ba-dot ikusteko gogo baldin egia bada; eta egia daite-keala uste daiteke, gure eritxiariak be etziran lo egongo alango jazoera negargarri batek zirkiñik eragin bagarik-eta.

* * *

Egiñen goibel baizen anker eta erailkor ari buruz nik neuk ikusi izan dodan ezaugarri adirazgarriena, argazki bat da: Atso zaartxu bat, amamatxu maitagarri bat, geratu ekiozan ondakintxuen ondoan jesarrita, neskatotxu bi, bere illobatxuak-edo, gurasoak galduta, aurki, umetxu erru bageak alboan dauzala, buruz-beera, oldozkor, negarrez malkoak txukatzeke arpegia zapiaz estalita, bere azken-urteetan ikusi eta jazaiten dagian zoritxarrak inguratuta. (Zeuok bere ikusi izango zen-duen argazki adirazgarri au, nunbait).

Aitetu dodan argazki negargarri a baizen margoizki egokiagorik ezin izan daiteke, ba, erri baten zoritxarra, sendien zakabanatzea ta ondamentia azaltzeko: Gudua, nekea, zoritxarra, odola, sua, eriotzea, olerkia, edestia ta egun negargarri atan gure aberriaren ganera eldu izan zan zoritxar eta ondamentia guztia adirazten ditu arek, argazki gogoangarri arek. Ez dakit nor daitekean argazki samingarri aren egillea baiña zana zala edo daitena dala, Gernika'ren ondamentien edestia oso-osorik itxi eban, gerorako bere, itzik barik baiña idatzitako itzak eta itzak eta edozein margoizki azalduko leukeen baiño azalgarriago ta adirazgarriago.

* * *

Gernika ondatuta gero be etzan ibitu izan arerioen guganako amurrua.

Zapaltzailleen uste maltzurrez, Gernika, geuk apur-tuta erre genduan, era guztietako zemauntzak eta erru-ordaiñak ezarri eutsezan inguruetaoeri.

GERNIKA

Arik laster zapaldu eben, Gernika-aldea, espainiarrak, italiar, doixtar eta mauroen laguntzaz eta, gure errietako gizonak, euretarrak etziranak, noski, Bizkargi-mendira gudarako ornigaiak eroaten be beartu ebezan, bear atarako egokiak etziran bakotxaren bei eta burdiekaz, gau illunetan, ezagutzen etzituezan bide aldapatsu ta latzak-zear, mendiak-gora, lerkai ta berunbil-zaparraden artean, zizpa luzeak zaintzen aldamenetan ebezala.

Euren adiskide ta lagun etzireanak, eraiketa aren ondamenak garbitzen eta atontzen beartu ebezan, bai gizon eta bai emakume; eta an egoan atz eta kiratsaz, ondaturik ebizan ango lanetara beartuak.

Eta, gero, Gernika'ren ondamendia ordaintzeko, Aien-giz, geure erria emon eutsen, Franko'k, agindu baten bidez, eta orain or gabiz, erriaz birjabetzeko eragozpe-nez beterik. Naiz-ta Euskalerrriaren arerioak ostuta emo-

na izan, lapurretako erria istea etxake, ba, gogoko, orain-go gernikar agintarieri.

* * *

Esanak esan, auxe dogu, ba, entzuleok, gure aberri maitagarriaren zoritxarrerako, menperatzailleak, ezarri euskuen guda anker, zantar, zikin eta negargarriaren zatirik entzutetsuena, mingarriena, aztueziñekoena ta, ordurik ona berrogetamar urte luze joan direanarren bere, gomuta bizienaz gogoratzen doguna: Gernika'ren ondamendia.

Ez dakigula eldu, barriro, alango zoritxar negargarri-rik gure Euskalerrri nekatu baizen zoritxarreko onetara.

Jabongo al gaitu azkatasunaren Jainkoak.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

ZER

ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1



†
ABELETXE JOAN JAKU

Manuel Ziarsolo "Abeletxe", idazle guztiz ezagunaren barria artu dogu ZER au irarkolan egoala.

Begoña'n, irailaren 20'an ospatu zan illetea.

"Euskerazaleak", Alkarkide onen eriotza dala-ta, bere samintasuna agertzen dau eta senideai ordu samin onetan alkar laguntza eskintzen dautse. Urrengo zenbakian emongo dogu zeaztasun geiago Abeletxe gura alkarkideari buruz. (G.B.).

ARRI BARRIAK

Barriz gaur urre-argi jario gardena
aaztu ezin dan arren izuen larria.
Andra Mariko eskiloiek bakearena
gogoan arren su ta burdinen jazarria.

Zu ziñan, Gernika, pekaturik gordiñena,
erri zital eta gaizto, Sodoma barria,
mendeen kolkoan mamindutako edena,
nai eta nai ez kixkal bearreko erria.

Ene Gernika, gorrotoen garrak errea,
euskal garizumaren ateko auts errea,
gure egien ikur, ileziñaren mirariz:

Borborka dituzu zeure zanak arri barriz
eta zugaitz donearen orri berdeetan
dabilkizu ozen askatasuna kantetan.

50 garren urtean
A. BIDAGUREN

GALDU ZARA? LAGUN

Nundiko aizeek dakartsue nere lagun
biotz barruan mailuka dozun oñazea?
Kezkura larregiz ain dozu kolkoa illun,
ain otz! Ba dirudi ondorik bako lezea.

Zimeltzen joatzu zeure lilluren ezea,
bildurrez lengo zerua zeru ete dozun
ala, urdin bearrez, samin moltzoz ase,
naigabe jarioen iturri t'izuen gun.

Arima zirkilluetan sartu jatzuz penak,
eriotzaren ataria baizen illunak,
erreka aundi bat bete negar aña mingotsak.

Odolak zearkatzen jabiltzuz etsipenak.
Alper deika egun barriaren oyartzunak.

Bakar-bakarrik dantzuzuz, gogor, mailu otsak.

A. BIDAGUREN

BASA LOIAK

Benetan ere gu ez gara ezer aundurik
geure arimaren sokondora geranean;
aizearen firi-fararik arinenean
gure barne-mirailak auts arrez lausoturik.

Itun gorriek dabilkiguz mamin eginik
ukondo barnetako zuloen illunean;
koldar buaden erasoak argi betean
dagresku geure utsa zaborreiz beterik.

Gogaita darakarsku arimago alorrak
ta beti darabilgu lugorri gauzezan
il aztarnaz betez beren eremu itzelak.

Basa loiz zikin ditugu bere ildo ilak
auts erre legorra buzti oi daroanean
gure fede kaxkarraren iturri agorrak.

A. BIDAGUREN

PERU'TIK

Nire lagun Aita Bollegi Peru aldeko lurraldeetan, jo ta ke, misiño lanetan atertu barik dabil.

Noizean bein eskutitz luze eta jakingarriak egiten deustaz, euskeraz, ango bere lanak eta gora-berak edestuz.

“Zer” aldizkariaren irakurleai atsegin izango jakelata, emen ipintzen dot oraintsu niri Mundaka'ko seme jatorrak egin deusten eskutitz au.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

PERU, LIMA. 1987'KO MAIATZAK 24

Aurtengo garizuman Anbato erriko auzo txiki baten misiñoak emotea egokitu jat. Ollerias dau izena.

Auzo txiki aretan gitxi izanik be, euren artean burrukan bizi dira, goiko-aldekoak beko-aldekoen aurka, eta orregatik auzune txiki ori infernu bat dala esan daiteke.

Barregarria da au alde batetik, eta bestetik oso tristea.

Nik euren artean tontoarena egin izan behar dot begien aurrean naukana ez-ikusia egiteko.

Lenengo egunean goi-aldeko bat etorri jatan esaten:

Guk, Aita, aste osorako zuretzat jatekoa erosi dogu, eta ez zaitetz joan iñoz be beko-aldera bazkaltzera.

Ni, irribarrez berari eskerrak emon ondoren, batzuetan goikoaldera joaten nintzan bazkaltzera, eta bestetan beko-aldera.

Bazkaltzera dei-egitea adiskidetasun ezaugarria da memen, baita misiolariak zerbait on egiteko une egokia.

Misiñoa asterakoan ez neukan nik ez eleizarik, ezta non lo egin be. Lenengo egunean kanpoan itzegin neban, baiña Jaungoikoa ona da eta berak guk baino obeto zaintzen ba-daki.

Andra pobre batek eskeindu eustan bere etxea lo egiteko, eta etxegille batek etxe bat emon eustan egun orreiterako eleizaren orde.

Auzo txiki au mendi baten aldapan dago, eta egu-nero alde batetik bestera gora eta bera, igon eta jatsi ibiltzen nintzan bertako umez inguraturik.

Ume oneik ez ekien gurasoen asarre eta gorrotoak zer ziran, eta orregatik alde bietakoak bakean alkar ondo artzen eben.

Umeak lagun eusten geien alde bien artean bakeak egiteko.

Umeak euren etxe edo obeto esateko txaboletatik urten, eta nigana arin etorten ziren eskuetan mosu emotera.

Nik, nagusiai umeen jarraibidea erakusten neutsen, eta esaten neutsen:

“Jaungoikoa maitatu eta lagun-urkoa gorroto, ezin daiteke. Ori ezin dau Jaunak onartu.”

Gau baten gizon gazte baltz bategaz afaltzea egokitu jatan. Edanda egoan, baiña nigaz ez zan sartu kalterik egiteko. Emakume bategaz “asi no más” alkartuta bizi zan. Nik esandakoaz negarrez asi zan, baiña niretzat aren negarrak “korkodriloaren negarrak” ziran. Ez dakit... baina dana dala aren andreak eskerrak emon eustazan.

Anbato'ko misiñoa amaituta “agur” egiterakoan jendea negarrez egoan, eta nik Jaungoikoa goratuz eta bedeinkapena emonaz azken agurra emon neutsen.

LIMA'N

Lenengo Peru'ko lur-ikarra gogorra izan zan, 6'garren gradukoa.

Ni eleizan nengoan eta jendea ikaratu zan, baita ni be. Batzuk bildurtuta alde egin eben.

Bigarren aldiko lur-ikara gogorragoa izan zan. Ni ocean nengoan, eta jagi nintzan, eta liburu-apalari eutsi neutsan gainera ez jausteko.

Ezin nintzan zutunik egon. Zelan edo alan, moskor baten antzera, kanpora pijama utsean urten nintzan, eta an aurkitu nebazan nire lagunak be...

Etxepean zapalduta iltzeko ez neukan gogo andirik, baiña Jaungoikoaren eskuetan jarri nintzan.

Lur-ikara igaro zanean, pijamaz alkar ikusiz, danok alkarri barreka asi giñan. Bildurrak emondako barre zoroa zan.

Aita Mendizabal, Bergara-tarrak barre-murrika esan eustan:

“Aita Bollegi, gaur otoitzean gartsu ikusi zaitut. Ateok be estualdietan zure antzera erreztatzen dabe”.

BOLLEGI JOSE MARI, JESULAGUNAK

JUANTXO-TXIKI OITURAREN FRUITUA

Juantxo-txiki be abereen antzera oitu egiten da. Zer egiñaz, zertan oitzen da. Ez al dozuz zirkoetan abereak ikusi, zenbat gauza arrigarri egiten dituen? Bein eta barriz gauza berbera egiñaz, aizkenerako ikasi.

Zer nai dozu Juantxo-txikik egunen batean egitea?

Gaurtik asi gauza orreik egin-arazten, oitura sortu arte. Gerora errez egingo ditu.

Zergaitik ez irakatsi onak badira berarentzat eta besteentzat?

* * *

Erri bakoitzak izan oi ditu jaki bereziak. Gure artean, angulak eta txipiroiak, esate baterako. Umetatik ikusi eta probatu ba'dozuz, zuretzako jakirik onenetakoak izango dira; baiña, gurera kanpotik datozenentzako ez da ala izaten. Ikusiarekin bakarrik, atzera egiten dabe. Izan be, zein ez da ikaratuko tximiñoiek dakarten baltza ikusita? Zeiñeri ez dautso nazkarik emango, kaxuela batean ateratzen dituen mamorro zuri areik?

Lenengoz ikusten dabezanak, bai angulak eta bai txipiroiak, atzera egiten dabe, muturra okertuz... Gu, barriz, areik ikustean, lorde-jario jartzen gara. Baiña, ekarri dagiezala Txina'n ain maite dituen arrautz ustelak, txori-ziriñak eta lurreko mozorroak, ea zer aurpegi ipintzen dogun...!

Ez giñan aretara oituak.

Aurtzaroan jandakoak, gaur gogokoak doguz.

Ori ez da otorduetan bakarrik gertatzen; beste gauzetan be bai.

* * *

Juantxo-txikiri onak diran ekintzak egin-arazo. Orrelan asten gara bere biotzean onbide guztien aziak ereiten, bere barruko baratzetan onaren landare barriak aldatzen.

Sikolojiak erakusten dauanez, biotz tristeak aurpegi tristea dakar beragaz; baña, alderantziz be bai: aurpegi tristek biotza tristetzen dausku; aurpegi alaiak biotza alaitzen dausku. Beraz, egizu barre gogo barik, barre gogoz egin dagizun.

Gauzea orrelan izanik, egintza onak sentipen onak sortuko ditu umearen biotzean; egintza txarrak, sentipen txarrak. Gure umetxoak egite onak egiten ba'ditu, naiz eta sentimentu onaren jabe oraindik ez izan, egite on orrein bitartez, sentimentu onaren jabe egingo jaku.

* * *

Norbereburukeriak ba-ditu umetxoak be. Nai dabena lortzeko, badakie ondotoxo nondik jo gure umeez eta nai dabena lortzen ez ba'dabe, arrantza jo astotxoan antzera. Izketan baiño lenago ikasiko dabe ori.

Ez zuen bururik bigundu.

Zuen erabagiari eutsi, burubide onekoa ba'da.

Juantxo-txikiren naira ez zuen buruak makurtu.

* * *

Makurtzen ba'zara, nai dauzanak eta bost egiten oituko da eta egunen baten illargia berbera eskatuko dautzu. Orduan izango dira zure burumiñak.

Umearen gogo guztiak betetzen dabezan gurasoek Juantxo-txikiren okerrerako dabiltz lanean. Onek uste izango du bera dala munduaren ardatza eta bere gogora makurtu bearko dabela beste gogo guztiak.

Egoista utsa.

Seme-alaba bakarreen arriskua.

Anai-arreba asko diran etxean bakoitzak bere buruari uko egiten errezago ikasten dau, beste guztien eskubideak errespetatuz...

Munduak ardatz asko dauzala.

Ez dala Juantxo-txiki munduaren ardatz bakarra.

Ba-dirala bere inguruan Miel-txiki, Mari-txiki eta Peru-txikirik asko, munduaren ardatz izateko berak aiña eskubide dabenak.

Colón de Larredategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gainetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.